

AUZO BATZARRA 2/2023

AUZO BATZARRAK 2023ko martxoaren 15ean EGINDAKO BILKURAKO AKTA

.AUZO ALKATEA

Unai Erroitzenea Gamio jn.

.BATZARKIDEAK

Eider Lasarte Santa Cruz and.
Olatz Juantorena Aizpurua and.

.IDAZKARIA

Irati Izquierdo Lazkano and.

2023ko martxoaren 15ean Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Auzo Batzarrak bilera egin du Ereñotzuko auzo etxean, eguerdiko 12:15tan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Unai Erroitzenea Gamio auzo alkatearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzarkideak eta neu, Irati Izquierdo Lazkano udal idazkariordearen delegatua.

01. Aurreko akta (1/2023.02.06) onartzea

2023ko otsailaren 6an egindako bileraren akta aho batez onartu da.

2. Olak auzo Elkarteari dirulaguntza zuzena onartzeko proposamena

Elkartearen izena	Olak auzo elkarte
Diru-laguntza kopurua (€)	30.000 €
Aurrekontu Partida	01.481.01.334.00 2023
Aurrekontu baimendua	AD 6/2023

Diru-laguntzaren xedea eta azalpena:

Olak auzo elkartearen helburua da, Jaiak eta kultur ekintzak antolatzea.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkarte, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte bakarra da.

2023ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Olak auzo elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2017-2019 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzaren hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Hori horrela, HONAKOA ERABAKI DA:

- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Olak auzo elkartearen elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.
- 30.000 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.
- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egingo da: diru-laguntzaren %80 (24.000 €) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %20 (6.000 €) justifikazioa aurkeztean.

3. 2022 urteko likidazioaren berri ematea

2023ko otsailaren 28ko datarekin, Hernanin honako dekretu hau onartu da, **2023/00000499 DEKRETUA**. Bertan, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartzen delarik.

Honen berri ematen da.

1.- Diruzaintzako izakin likidoak:	473.538,47
2.- Kobratu gabeko saldoak:	493.244,41
3.- Ordaindu gabeko saldoak:	42.222,30
4.- Aplikatu gabeko partidak:	0,00
5.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3+4):	924.560,58
6.- Saldo kobragaitzak:	0,00
7.- Diruzaintzako gerakin likidua (5-6):	924.560,58
8.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	341.070,00
9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (7-8):	583.490,58
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	442.477,36
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	42,70
12.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioak:	25.070,96
13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	341.070,00
14.- Aurrekontu emaitza (10+11+12-13):	126.521,02

Likidazio laburpena:

9.- Gastu orokorretarako Diruzaintza Gerakina:	583.490,58
15.- Aurrekontura txertatu behar diren 2022ko kredituak:	75.710,25
16.- Diruzaintzako Gerakin erabilgarria (9-15):	507.780,33

ESKU38885840-cac2-41c7-bc6e-532e8d66fdd8

04. Eskariak eta galderak.

Ez dago eskari eta galderarik.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera 12:30tan bukatu da, eta Unai Erroitzenea Gamio auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udaleko bitarteko idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut

AUZO ALKATEA

UDAL IDAZKARIORDEAREN DELEGATUA

Ereñotzu bailara, 2 – PK: 20128 Hernani – Tel. 943 55 10 00 – e-mail: ereinotzu@ereinotzu.eus – IFZ: P-2000027-I



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU38885840-cac2-41c7-bc6e-532e8d66fdd8**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=74010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=74010>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023DRZU0001-Akta/Akta (EREÑOTZUKO OLAK AUZO ELKARTEA)